

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2024ko AZAROA


Euskal AEko industria-jarduera % 1,6 jaitsi da 2024ko azaroan

Urteko lehen hamaika hilabeteetako metatuan industria produkzioa % 1,0 jaitsi da

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko azaroan Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 1,6 txikiagoa izan zen, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan neurtuta.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera % 0,8 gehitu da azken hilabete honetan, dagozkion urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetako* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2024ko azaroan, eta produkzioa % 0,8 jaitsi da sektore osoan. Jaitsiera hori batez ere *Kontsumo-ondasun iraunkorren* portaerari zor zaio, horien produkzioa % 4,7 jaitsi baita; izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* produkzioa pixka bat igo da, % 0,1. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean, altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzea sartzen da, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea daude.

Ekipo-ondasunen produkzioa, % 2,8 murriztu da aurreko urteko azaroaren aldean. Hemen sartzen dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, produkzioa % 1,5 jaitsi da.

Energiaren produkzioa, aldiz, % 2,0 igo da 2024ko azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2024

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	
Indize orokorra			
Euskal AE	-1,6	-1,0	0,8
Araba/Álava	-2,9	-2,6	0,2
Bizkaia	-1,0	-0,7	1,3
Gipuzkoa	-1,4	-0,4	0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-0,8	-0,8	0,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-4,7	-2,7	2,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,1	-0,3	0,2
Ekipo-ondasunak	-2,8	-1,2	0,2
Bitarteko ondasunak	-1,5	-0,6	0,9
Energia	2,0	0,2	0,9

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritetik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Urtarrilaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

—

2024ko azaroan, Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Araban produkzioa % 2,9 jaitsi da, Gipuzkoan % 1,4 eta Bizkaian % 1,0.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2024ko azaroan produkzioaren jaitsiera handiena izan dutenak ondokoak izan dira urte arteko terminoetan: Garraio-materiala (% 4,8) eta *Elikagai-industriak, edariak eta tabakoa* (% 1,7). Aitzitik, produkzioaren urte arteko hazkundeak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,6) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 1,7) sektoreetan kontzentratu ziren.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Azaroa 2024

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-1,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,7
Kautxua eta plastikoak	0,5
Metallurgia eta produktu metalikoak	-1,0
Materiala eta tresna elektrikoak	0,4
Makineria eta tresneria	-1,6
Garraio-materiala	-4,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	3,6

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Urtarrilaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2024ko AZAROKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen hamaika hilabeteetako metatua, Industria-Produkzioaren Indizea % 1,0 jaitsi da. Azarora arte metatutako produkzioa % 0,8 jaitsi da *kontsumo-ondasunetan*, % 1,2 *ekipo-ondasunetan* eta % 0,6 *bitarteko ondasunetan*. *Energiak*, aldiz, bilakaera positiboa metatu du, produkzioa % 0,2 igo baita aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

Lurralde historikoka, 2024ko lehen hamaika hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da hiru lurraldeetan. Araban, industria-produkzioaren jaitsiera metatua % 2,6koa izan da, Bizkaian % 0,7koa eta Gipuzkoa % 0,4koa.

INFORMAZIO-OHARRA

Industria-produkzioaren indizearen erreferentzia-urtea berritu egin da, eta 2021a izango da indizearen oinarri berria, Eurostaten gomendioei jarraituz. Oinarria aldatzeko prozesuak lagina sakonki eguneratzea ekarri du, eta hobekuntza metodologikoak sartu dira, bai baliozkotzeko, egozteko, bai serieak zuzentzeko eta urtarokotasuna kentzeko metodoak berrikusita. Horrek guztiak Industria-Produkzioaren Indizea osatzen duten serieak eguneratzea ekarri du.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **83,82**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62